

**BILBOKO EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA**  
**EUSKALTEGIEN AZPIBATZORDEA**

4. batzarraren AKTA.  
2017ko maiatzaren 30a – 9:30 h.

**BERTARATUAK**

**Bilboko Udala**

Jone Unzueta (Euskara eta Hezkuntzako zuzendaria)

Marijo Arrieta (Euskarako zuzendariordea)

**Euskaltegiak**

*AEK.* Galder Lizarralde

*Bilbo Zaharra.* Jon Maguregi

*Deustuko Unibertsitatea.* Mertxe Luzuriaga

*Gabriel Aresti.* Xabier Monasterio eta Isabel Isazelaia

*Juan Mateo Zabala.* Nerea Telleria

*Labayru Fundazioa.* Josemi Vidales

*Mondragon Lingua.* Aitziber Iturricastillo

*Ulibarri.* Patxi Agirregomezkorta

**Ezin etorria aldez aurretik adierazi dute**

*Bai&By.*

**Idazkaritza teknikoa**

*Bilbao Metropoli-30.* Idoia Postigo

*Labayru Fundazioa.* Lander Solozabal

## DIRU-LAGUNTZEI BURUZKO BILERA MONOGRAFIKOA

Aurreko bileran (2017-05-18) adostu bezala, epe bat zabaldu da euskaltegiek Udalari diru-laguntzen inguruko informazioa bidaltzeko, bilera monografiko honetan denon artean konpartitu eta aztertzeko.

Jasotako dokumentazioa aztertu ostean, solasaldia sortu da parte-hartzaileen artean. Hau da laburpena:

### **Egoera**

- Marko ekonomiko orokorrak eragin handia dauka.
- Inguruko beste udalerrri batzuekin konparatuta, Bilbon garestiagoa da euskara ikastea, baita Donostian eta Gasteizen ikastea baino garestiagoa ere.
- Ikasleak matrikularen zenbatekoa aurreratu behar du eta hori askotan traba izaten da jendea euskaltegira joateko.

### **Erronka**

- Halaber, herritarrok eskubidea daukagu euskara ikasteko eta doakotasunerantz jotzea izan behar da helburua.
- Bilbo eredugarria da. Bilbok erreferentzia markatu behar du, eta aitzindaria eta eredugarria izan beste herrientzat, hala dagokiolako, eta gai honetan efektu biderkatzailea lor dezakeelako.
- Horretarako, eta baliabideak mugatuak direnez, Bilboko Udalak beste erakundeetara (BFA, EJ) jo dezake haiekin koordinatuta lan egiteko, Udalak ezin baitu bere aurrekontuarekin dena bere gain hartu.

### **Erabilera**

- Helduen euskalduntzea ezinbestekoa eta premiazkoa da, baina ez nahikoa.
- Helduen euskalduntzea eta eskola mundua eskutik joan behar dute.
- Erakundeetan, umeekin, merkataritzan eta arlo guztietan euskararen erabilera bultzatu behar da.
- Umeen (eskola-hezkuntza) eta helduen irakaskuntzaz gain, eta tituluak edo lanpostuak lortzeaz gain, euskararen erabilera da helburua.

Aurreko guztia kontuan hartuta, Bilboko Udalak arretaz aztertuko ditu dauzkan aukerak planteatutako erronkei erantzuna emateko.

Euskategien azpibatzerde honek aurreikusita dauka beste bilera bat egitea irailean.

Beraz, gaurko bileran hitz egin dugun gaiaren inguruan aurrerantzean hartuko diren erabakiak azpibatzerde honetako kideei jakinaraziko zaizkie.

Iraileko bilera horri begira berriz, euskaltegiek epe bat izango dute (ekainean zehar) identifikatu diren xede-talde zehatzetan (merkataritza, gurasoak, umeentzako kanpoko ekintzak, turismoa,...) euskararen erabilera sustatzearen inguruko ideiak eta esperientzia arrakastatsuak bidaltzeko. Informazio hori guztia azpibatzerde honetako kideei bidaliko zaie, iraileko bilera horretan azter dezaten eta, hortik abiatuta, elkarrekin ekintzak martxan jartzeko.

Bilbon, 2017ko maiatzaren 30ean

BILBOKO EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEKO IDAZKARIA